

2021eko “Vianako Printzea” Kulturaren Saria

Teresa Catalán Sánchez
andreaki emateko ekitaldia



Erriberri. 2021eko ekainak 19, 12 h.

“Vianako Pr

Ekitaldien programa

Ekitaldia Erriberrin, Aita Frantziskotarren elizan egingen da.

Lehendakaritzako oholtzan, Vianako Printzearen estandartea eta bandera ofizialak gaineko dituztela, ezkerraldean eseriko dira: Nafarroako Foru Komunitateko Lehendakaria, María Chivite; Nafarroako Parlamentuko Lehendakaria, Unai Hualde, eta Erriberriko alkatea Maite Garbayo. Eskuinetara, berriz, Teresa Catalán, aurtengo saritua; Kultura, Kirol eta Gazterriako kontseilaria, Rebeca Esnaola, Nafarroako Kulturaren eta Arteen Kontseiluko buru den partez; eta Patxi Larrañaga Iruñeako Taldea Musikagileak-eko kidea eta Arte Eszenikoen eta Musikaren Institutu Nazionalaren PLATEA programaren kudeatzailea.

Ekitaldia honela garatuko da:

- Nafarroaren himnoa, *Erreinuaren sarrerarako martxa*, Valentín Ruizena (1939), Nafarroako Orkestra Sinfonikoaren metal boskoteak joa.
- Patxi Larrañagaren hitzaldia, Teresa Catalán Sánchezek bere dituen merezimenduen gainean.
- Nafarroako Foru Komunitateko Lehendakariak saria eskuratuko dio Teresa Catalán Sánchez andreari.
- Sarituaren esker onezko hitzak
- Musika entzunaldia. *Las Redes de la Memoria: cuarteto en dos movimientos*, Teresa Catalánena (1951), Quatuor Europak joa.
- Nafarroako Foru Komunitateko Lehendakariak hartuko du hitza.
- Musika entzunaldia. *Agur Jaunak*, tradizionala, Iruñeko Ganbara Abesbatzak kantatua.

intzea” Saria

“Vianako Pr

Vianako Printzea Saria

Vianako Printzea Saria Nafarroako Gobernuak sortu zuen 1990ean eta urtero ematen da, Nafarroako Kultura Kontseiluak, kultur gaietan Gobernuari aholku emateko organoak proposaturik.

Sariaren helburua da pertsonak, taldeek nahiz instituzioek kulturaren edozein arlotan egindako lanari aitormena ematea, dela sorketan, ikasketan edo ikerketan, dela kultura bultzatu eta sustatzen. Sariak bereziki kultura jardunaren edozein arlotako lan jarraikiei eta ibilbide esanguratsuei eman nahi die aitormena.

Nafarroako Gobernuak, orain arte, honako Vianako Printzea Kultura Sariak eman ditu:

- 1990 José Goñi Gaztambide, historialaria.
- 1991 Eugenio Asensio Barbarin, hispanista.
- 1992 Iruñeko Orfeoia.
- 1993 Rafael Moneo Vallés, arkitektoa.
- 1994 Francisco Ynduráin Hernández, filologoa.
- 1995 Julio Caro Baroja, antropologoa.
- 1996 Pablo Antoñana Chasco, idazlea.
- 1997 Pedro Miguel Echenique Landiribar, fisikaria.
- 1998 Montxo Armendáriz Barrios, zine zuzendaria.
- 1999 Álvaro d'Ors Pérez Peix, Erromatar Zuzenbideko katedratikoa.
- 2000 Concepción García Gaínza, Artearen Historiako katedratikoa.
- 2001 Miguel Sánchez-Ostiz Gutiérrez, idazlea.
- 2002 María Bayo Jiménez, sopranoa.
- 2003 Juan José Aquerreta Maestu, pintorea.
- 2004 Fernando Redón Huici, arkitektoa.

Printzea” Saria

- 2005 Javier Manterola Armisén, ingeniaria.
- 2006 Javier Tejada Palacios, zientifikoa.
- 2007 Pedro Iturralde Ochoa, musikaria.
- 2008 Alfredo Landa Areta, aktorea.
- 2009 Agustín González Acilu, konpositorea.
- 2010 Jürgen Untermann, hizkuntzalaria.
- 2011 Faustino Menéndez Pidal de Navascués, historialaria.
- 2012 Antonio López García, pintore eta eskultorea.
- 2013 Daniel Innerarity Grau, filosofoa.
- 2014 Tarsicio de Azcona, historialaria.
- 2015 Ramón Andrés González-Cobo, musikologoa.
- 2016 Ignacio Aranguren Gallués, teatro irakasle eta zuzendaria.
- 2017 José Lainez eta Concha Martínez, dantzariak eta koreografoak.
- 2018 Iruñeko Ganbera Abesbatza.
- 2019 Tomás Yerro Villanueva, idazle eta irakaslea.
- 2020 Carlos Cánovas Ciáurriz, argazkilaria.

“Vianako Pr

Teresa Catalánen ginean

Teresa Catalán hizpide harturik ezin konta ahala orrialde bete litezke haren merezimendu paregabeak erakusten dizkigun curriculum luze bikaina jorratuz.

Gaur, ordea, agerian jarri nahi genuke nola nafar emakume batek, Iruñeko Pablo Sarasate Kontserbatoriotik abiatuta, gorengo maila hartu zuen musikaren kulturaren, eta bai ospe zabala ere, nola Espainian nola nazioartean.

Madrilgo Goi-mailako Musika Kontserbatoriotik, Teresak eragin handia izan du gaurko musikariek hoberenean, hainbat musikari gizalditan zehar.

Haren arte produkzioa, Nafarroako musika nortasun eta kultura tradizionala abiaburu, nazioarteko hainbat joeratarara irekita dago eta lagundu egiten du, hortaz, gure kulturaren zenbait alderdi hedatu eta Iruñaren zein Nafarroaren izena jendarteratzen. Etengabe erakusten du gure lurrari dion atxikimendua eta ezinbesteko bultzatzailea eta laguntzailea izan da hainbat musika erakunde publiko zein pribatutan, eta bai nazioarteko gertakuntza eta foro askoren kudeatzailea ere.

Ageriratu nahi dugu Espainiako Konposizio Katedra batean bideurratzaile izan den emakume honen lan nekagaitza, zeinari esker lortu baitu musikak merezi dituen garrantzia eta estimua izan ditzan Unibertsitate irakaskuntzan.

Emakume bipila, jakingalea, gogo berokoa, gauzen zergatia ikertzen zalea. Irakaslan pertsonala egin du, iaioa baita hizkuntza guztiak erabiltzen eta haien bidez hizkuntza propio batez mintzatzen baita. Teresak badaki nola musika egin, sentitu eta gogoberotasun hori nola helarazi. Musika izan du bere bizitzaren ardatza eta bere eligakia.

Pertsona iristerraza da, bere barneko sormena bizitzen duena, ongi baitaki helbururik hoberena dela norbere burua ezagutzea eta gizaki gisa etekin ateratzea.

“Mintzeak” Sarria

Arte Filosofian doktorea, Iruñeko Bostak talde mitikoaren fundatzailea izan zen.

Irakasle eta sortzaile gisan egin duen lanak bai Espainian bai nazioartean aitormena ekarri dio, baina beti atxiki du Kulturak Nafarroan duen egoeraren kezka, Nafarroa bere lurra baita, behin ere bazter utzi ez duena.

Edozein erakundek laguntza eskatu dion guztietan, eta hori ongi dakigu Madrilgo Asociación Cultural Navarrako kideok, hura beti prest dago bere kezkak partekatzeko.

Bera izan da eta da M maikuskularekiko Musikaren munduan Nafarroak izan duen enbaxadore handia, eta lan gaitza egin du Nafarroako eta Mundu osoko musika ondarea sortu, atxiki, zabaldu, gehitu eta sendotzen.

Teresak munduari hots eragin dio.

“Vianako Pr

46/2021 FORU DEKRETUA,
ekainaren 2koa, zeinaren
bidez xedatzen baita
Teresa Catalán Sánchez andreari ematea
2021. urteko Vianako Printzea Kulturaren Saria.

Nafarroako Gobernuak sortu zuen, 1990ean, Vianako Printzea Kulturaren Saria, eta haren helburua da aintzat hartzea kulturaren edozein arlotan pertsona edo erakunde nabarmenek egindako lana, dela sorkuntzan, ikaskuntzan edo ikerkuntzan, dela kultura hedatu eta sustatzeko lanetan.

Nafarroako Kulturaren eta Arteen Kontseiluak erabaki du Nafarroako Gobernuari proposatzea Teresa Catalán Sánchez andreari eman diezaiola 2021. urteko Vianako Printzea Kulturaren Saria, egin dituen merezimendu nabarmenengatik.

Teresa Catalán Sánchez (Iruñea, 1951) nazioartean ospea duen konpositorea da, genero guztietako 70 obra baino gehiago egin dituena. Espainian izan den lehen konposizio-katedraduna izan da, eta Madrilgo Goi Mailako Kontserbatorioan aritu da. Musikaren teoria modernoari buruzko hainbat funtsezko tratatu egin ditu; musika jarduerak sustatu ditu eta musikaren munduan erreferente bihurtu da, non irakaskuntza eta ikerketa batera egin baititu.

Beste aitorten batzuen artean, 2017an Musikako Sari Nazionala jaso zuen, eta Merezimendu Zibilaren Ordenako Ohore-domina dauka.

Pablo Sarasate Kontserbatorioan egin zituen musika-ikasketak eta bertan lortu zuen Pianoko eta Konposizioko titulua. Fernando Remacha, Juan Eraso, Luis Morondo, Luis Taberna eta beste musikari nabarmen batzuekin ikasi zuen. Bere ikasketak zabaldu zituen Italian; Musika Sormeneko eta Estetikako masterra egin zuen Valentziako Unibertsitatean, eta Artearen Filosofian doktoratu zen bertan.

Madrilgo Musikako Goi Mailako Errege Kontserbatorioko Konposizio eta Instrumentazioko katedradun emeritua da, eta Madrilgo Unibertsitate Politeknikoko Musika eta haren zientzia eta teknologiari buruzko Doktorego Programako Batzorde Akademikoko kide.

Printzea” Saria

JAKIUNDEko kide hautatua da, Arte Eszenikoen eta Musikaren Estatuko Kontseiluko kidea, Musikaren Kontseilu Nazionalekoa, Espainiako Orkestra eta Koru Nazionalekoa, Errege Antzokiaren Kontseiluko, eta Iruñeako Taldea Musikagileak taldeko eratzailleetako bat, zeinarekin musika sortu eta zabaltzeko lan eskergea egin baitzuen. Era berean, nazioarteko ikastaro, topaketa eta jaialdi askotako musika saila zuzendu du.

Catalán “Sistemas compositivos temperados en el siglo XX (2. argitalpena)” tratatuaren egilea da eta “Música no tonal. Las propuestas de Julien Falk y Ernst Krenek” obraren egileetako bat dugu. Liburu eta aldizkari garrantzitsuetan argitaratu ditu artikulua, baita zenbait musika-lan ere Espainiako eta Alemaniako argialetxeetan. Zenbait aldizkari espezializatutako erredakzio kontseiluko kide ere bada.

Diskoak, liburuak, artikulua eta txostenak argitaratu ditu. Haren obretako batzuk Estatuko zenbait kontserbatorioren ikasketa-programetan sartuta daude. Haren obrak jaialdirik garrantzitsuenetan programatu dituzte, eta hainbat herrialdetan, hala nola, Alemania, Italia, Argentina, Errusia, AEB, Frantzia, Holanda, Kuba eta Errumanian.

Horiek horrela, Nafarroako Gobernuak, Nafarroako Kulturaren eta Arteen Kontseiluaren proposamena ikusita, bidezkotzat jo du hari ematea 2021. urteko Vianako Printzea Kulturaren Saria.

Horrenbestez, Kultura eta Kiroleko kontseilariak proposaturik, eta Nafarroako Gobernuak 2021eko ekainaren 2an egindako bilkuran hartutako erabakiarekin bat,

“Vianako Printzea”

DEKRETATZEN DUT:

1. Teresa Catalán Sánchez andreari ematea 2021eko Vianako Printzea Kulturaren Saria.

2. Foru dekretu hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzea eta Teresa Catalán Sánchez andreari jakinaraztea.

Iruñean, 2021eko ekainaren 2an.


Nafarroako Gobernuako lehendakaria,

María Chivite Navascués

Kultura eta Kiroleko kontseilaria,

Rebeca Esnaola Bermejo

Printzea” Saria



Parte hartu duten musika taldeak

Nafarroako Orkestra Sinfonikoaren metal boskotea

Aritz García de Albéniz, *tronpa*

Ibai Olagüe, *tronpeta*

Ana Belén Duval, *tronpeta*

Santiago Blanco, *tronboia*

Mikel Arkauz, *tronboia*

Quatuor Europa

Christian Ifrim, *biolina I*

Anna Radomska, *biolina II*

Jerzy Wojtysiak, *biola*

Tomasz Przylecki, *biolontxelo*

Iruñeko Ganbara Abesbatza

David Gálvez, *zuzendaria*